

Familia agurgarria:

Idatzi honen bitartez, **hurrengo astean, Haur Eskola (2020an eta 2021ean jaiotako haurrak) eta Batxilergoko matrikulazio epea irekitzen dela** jakinarazi nahi dizuegu. Jakin badakizue, azken urteetan eraldaketa prozesu handi batean barneraturik gabiltzala profesional ezberdinekin elkarlanean eta **bi etapa hauek berebiziko garrantzia izan dute** prozesu honetan.

**Haur Eskolari dagokionez**, haurren beharretara egokitzen diren **azpiegitura berritzaile** eta ikusgarriak ditugu ikastetxean. Hezitzaileek, formakuntza jarraia eta elkarlanaren bitartez, **haurren behar pertsonalei erantzutea** da helburu nagusia eta noski, **familiekin elkarlana eta harreman estua** mantenduz.

**Batxilergoari dagokionez** berriz, hezkuntza egiteko modu berri bat diseinatu dugu, horrek emaitzetan duen garrantziarekin. **Aukera ugari eskaintzen dituen eremu zabal bat sortu dugu. Espazio argitsu eta zabalek** eskaintzen dizkiguten abantailak aprobetxatuz, **irakasle eta ikasleen arteko komunikazio eta transmisiorako guneak** ditugu. Bestetik, baita **bakarka edota taldeka lan egiteko espazioak** ere eta azkenik, **aisialdirako gune bat** ere badugu. Honetaz gain, **eskola orduz kanpo ikasleek eskolako azpiegiturak erabiltzeko aukera dute** ikasteko, talde lanerako...

Espazioak diseinatzeaz gain, ikasleekin lan egiteko modu berezia dugu. **Modalitate zein hautazko arloetan talde txikietan lan egiten dute gure ikasleek, eta hori emaitzetan islatzen da.** Gainera, ikasle guztien beharretara egokituz aukera guztiak bermatzen dituen eta ondorengo ikasketak baldintzatuko ez dituen hiru adar irakasten ditugu gure Batxilergoan. **Giza eta gizarte zientzien batxilergoa, giza zientzien batxilergoa eta zientzia eta teknologia batxilergoa.**

Aipatzekoa da gainera, gure ikasleek maila akademiko ona lortzen dutela. Orain arte, **gure ikasle guztiek izan dute aukera nahi izan dituzten ikasketak egiten jarraitzeko.**

**2020-2021 ikasturterako Batxilergorako matrikulazio kanpaina horrela mantentzen da oraingoz:**

	epearen hasiera	epearen amaiera
on-line eskabidea	2020ko maiatzaren 4a	2020ko maiatzaren 21a(*)
eskabidea ikastetxean	2020ko maiatzaren 11(*)	2020ko maiatzaren 22a(*)

\* osasun-agintarien orientabideen eta balizko alarma-egoera luzatzeak ezar lezakeenaren arabera.

**Online matrikula egiteko aukera [www.zumaiena.eus](http://www.zumaiena.eus) web gunean.**

**Bizi dugun egoera medio, aldaketak izan daitezke. Honen inguruan edota gure Haur Eskola edo Batxilergoko eskaintzaren inguruko informazio gehiago beharko bazenute, atsegin handiz azalduko genizueke arreta pertsonalizatua eskainiz. ([ikastetxea@zumaiena.eus](mailto:ikastetxea@zumaiena.eus) edo 943860462).**